

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

5771 *3/2021 Legea, apirilaren 12koa, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19aren ondorioak arintzeko.*

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

I

COVID-19 birusaren pandemiak sortutako osasun-krisia zela eta, Ministro Kontseiluak alarma-egoera deklaratu zuen, 2020ko martxoaren 14an, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaz baliatuz.

Geroago, martxoaren 17an, Ministro Kontseiluak 8/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen (martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena), neurriak ezartzeko nolabait arintzeko COVID-19 birusaren pandemiak eragin duen krisialdi sanitario, ekonomiko eta soziala.

Aipatutako errege lege-dekretu horretan ezartzen den neurrietako bat da aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEE) malgutzea, bai ezinbesteko kasuetakoak, bai arrazoi ekonomikoengatik, arrazoi teknikoengatik, antolakuntzako arrazoiengatik edo ekoizpen-arrazoiengatik egin direnak. Neurri horrekin, arindu nahi da osasun-krisi honek lan-merkatuan eragin duen hondamendia.

Nolanahi ere, alarma-egoera deklaratu zenetik, gure lan-merkatua oso geldituta dago, eta, gainera, ABEEE asko aurkeztu dira; horregatik guztiagatik, neurri eta tresna berriak ezarri behar dira osasun-krisi honek gure herrialdeko langileengan daukan eragina arintzen laguntzeko.

Horrenbestez, bizi izan zen egoera apartekoa eta larria izan zen, eta eskatzen zuen neurriak hartzea egokiro erantzuteko krisi sanitarioaren ondorio aldakorrek ekarri zituzten premiei. Izan ere, krisiak goitik behera eta inoiz ez bezala aldatu zuen gure egunerako bizimodua, eta hondamendia eragiten ari da lan-merkatuan; ondorioz, ziurgabetasun handia eragiten die hainbat eta hainbat langileri, zeren lanpostuak kolokan ikusten baitituzte, alarma-egoeraren deklarazioak berekin ekarri duelako jarduera asko eta asko etetea.

Hori guztia dela eta, Gobernuak martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege Dekretua onartu zuen, Lan-arloan neurri osagarriak ezartzen dituena COVID-19aren ondorioak arintzeko. Errege lege-dekretu hori, berriz, Diputatuen Kongresuak onartu du, eta lege-proiektu modura izapidetu da.

II

Lege honek bost artikulua ditu, lau xedapen gehigarri eta bi azken xedapen.

Lehenengo eta behin, lege honen helburua da tresna egokiak ezartzea bermatzeko benetan aplikatuko direla egungo inguruabarretan ezinbestekoak diren zerbitzuak, egokiro erantzun ahal izateko sortu diren osasun-arretako eta gizarte-arretako beharrezanei. Izan ere, ospitaleek, anbulatorioek eta zahar-egoitzek, besteak beste, oinarrizko zerbitzuak

ematen dituzte osasun publikoko eta gizarteko larrialdietan; hau da, gaur egun bizi duguna bezalakoetan.

Horrela, bada, lege honek aurreikusten du ezen, egungo alarma-egoeran eta haren luzapen posibleak indarrean dauden artean, ezin izango dela izapidetu ABEEErik inongo zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitariotan, hala nola ospitale eta anbulatorioetan edota zahar-egoitzetan, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen egoitzetan edota eguneko zentroetan, baldin eta Osasun Ministerioak edo Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioak funtsezko zerbitzutzat jotzen baditu, berdin delarik zein den haien titulartasuna —publikoa ala pribatua— edota kudeaketa-araubidea. Neurri horren helburua da bermatzea Espainiako gizarte osoak, instituzioek eta antolakundeek pertsonarik ahulenekin daukaten konpromisoa, kontuan edukita alde horretan daudela, inolako ezbairik gabe, gaixorik dauden pertsonak eta gizarte-mendekotasunen bat dutenak.

Halaber, lege honek osatu eta zehaztu egiten ditu martxoaren 17koa 8/2020 Errege Lege Dekretuak (martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen izapidetzeaz ezartzen dituen neurrietako batzuk, eta zehazten du zer prozedura bete kotizaziopeko langabezia-prestazioa onartzeko lege horren 22. eta 23. artikuluetan ezartzen diren arrazoiaren oinarrituta kontratuak eteten edota lanaldia murrizten zaien pertsona guztiei; era berean, lan-arloko neurri batzuk ere ezartzen ditu, COVID-19 birusaren krisiak langileengan daukan eragina arintzeko.

Bai enpresek, bai sektore ekonomikoek, bai gizarteak, oro har, uste dute ezen, gaur egun, ekoizpen-jarduera hozten ari dela COVID-19 birusaren krisiak ekarri duen ezohiko egoeraren ondorioz, eta, horrenbestez, egoerak iraupen mugatua izango duela, hau da, denboraldi mugatu batean luzatuko dela.

Horregatik, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan, aparteko neurri bereziak ezarri ziren, bermatzeko ezen krisialdi sanitarioaren efektuek ez dutela eragotziko berriro ezartzea enpresa-jarduera eta enplegua zaintzeko lanak. Horren ildotik, eta nahiz eta indarrean jarraitu lan-arloko araudian ezartzen diren arrazoiak langileak kaleratzeko eta kontratuak azkentzeko, Gobernuak sendotu egin zituen lanaldia eteteko eta murrizteko prozedurak (azkartu eta malgutu egin zituen), martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23. artikuluetan aipatzen dituen arrazoiak ez daitezen erabili enpleguaren inguruko neurri traumatikorik sartzeko (lan-kontratuak azkentzeko), baizik eta aldi baterako neurriak ezartzeko, egokiagoak baitira egungo abagune-egoeran.

Halaber, kooperatiba-sozietateen kasuan, aurreikusten da artezkaritza-kontseiluak eskumena bereganatu ahal izango duela onartzeko, batetik, erabat edo modu partzialean etetea bazkideen lan-jarduna eta, bestetik, ziurtagiria egitea horretarako egin beharreko izapideak egiteko, baldin eta, baliabide faltagatik edo dauden baliabideak egokiak ez izateagatik, ezin badu deialdirik egin batzar orokorra baliabide birtualen bidez egiteko; beti ere, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Beste alde batetik, lege honetan, mekanismoak aurreikusten dira arindu dadin osasun-krisi honek aldi baterako lan-kontratuaren daukan eragina, eta erabakitzen da ezen, ondorio guztietarako eta bereziki aldi baterako kontrataziorako, salbuespen-faktore modura kontuan hartu behar dela nazio-lurralde osoan deklaraturako alarma-egoerak jarduera ekonomikoan ekarri duen geraldia, zeinak, kasu batzuetan, eragozten baitu zerbitzuak ematea.

Horregatik, lege honen bidez ezartzen da ezen, inguruabar horren aurrean, eten egingo dela kontratuen iraupenaren zenbaketa, baldin eta ezin badute bete beren xedea, horretarako sinatu baitziren. Horrela, bermatu egiten da aldi baterako kontratuak (prestakuntzakoak, txanda-kontratuak eta bitartekoak barne) beren iraupenik luzeena izatea, eta ondorio guztiak sortzea, hasieran aurreikusitako aldi osoan zerbitzuak emateari dagokionez eta kontratuarekin lotutako trebakuntzari eta enpresa-jarduerara egiten den ekarpenari dagokienez. Hala, COVID-19 birusaren ondoriozko krisi sanitarioak sortutako larrialdiak ez du eragotziko enpresek beren baliabideak nahi duten bezala antolatzea.

Era berean, enpresek gero eta aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente gehiago eskatu eta komunikatzen dituztenez, guztiz ezinbestekoa da baterako konponbidea eskaintzea egoera guztiak izapidetzeko orduan, hala espediente horiek kudeatzen dituzten entitateentzat nola lan-arloko agintarientzat. Hain zuzen ere, argitu nahi da zenbat denbora iraun dezaketen isilbidez ematen diren ebazpenak, ezinbesteko arrazoiengatik eskatzen diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetakoak, zeinetan isiltasuna positiboa baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 24. artikuluan ezartzen duenaren arabera, baina haien iraupena ezin da izan alarma-egoeraren indarraldian eta haren luzapenetan ematen diren ebazpen espresuena baino luzeagoa; betiere, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren arabera.

Beste alde batetik, lege honek neurriak aurreikusten ditu oreka lortu ahal izateko sektore publikoko baliabideen eta gaur egungo osasun-krisi larri honen eraginpean dauden enpresek eta langileek behar dituzten erantzunen artean. Hori guztia, ahaztu gabe beharrezkoak diren kontrol- eta zehapen-mekanismo guztiak ezarri behar direla, inork iruzurrik egin ez dezan baliabide publikoekin eta baliabideok bakarrik erabili daitezzen beren izaerarekin eta xedearekin lotutako helburuetarako.

Horrela, aurreikusten da zehapenak ezartzea enpresei, baldin eta ikusten bada eskaeran datu faltsurik edo okerrik ematen dutela; halaber, arauan ezartzen denarekin bat etorriz, zehapena ezar dakieke erregulazioa eskatzen duten enpresei, baldin eta enpleguarekin lotutako neurriak eskatzen badute baina neurriok ez badira beharrezkoak edo ez badaude behar adina lotuta sortzen dituen arrazoiarekin eta, gainera, neurrien ondorioz enpresek bidegabeko prestaziorik sortzen edo jasotzen badute.

Modu paraleloan, ezartzen da langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateak lankidetzan jardun beharko duela Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin, eta azken horri jakinarazi behar diola baldin eta iruzur-zantzurik antzematen badu langabezia-prestazioak lortzeko orduan.

Gainera, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren aldaketa bat ere egiten da zehazteko ezen arau horren 24. eta 25. artikuluetan kotizazioen eta langabezia-babesaren arloetarako aurreikusten diren aparteko neurriak aplikatu egingo zaizkiela errege lege-dekretua indarrean jarri aurretik kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko prozeduraren baten eraginpean daudenei; betiere, prozesu horiek errege-lege-dekretua indarrean jarri aurretik jakinarazi, baimendu edo hasi badira eta, betiere, COVID-19 ondorio zuzena badira.

Azkenik, lege honen bidez aldaketa bat egiten da COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluan (kontratazioari buruzkoan) larrialdia izapidetzeko aukera zabaltzeko sektore publiko guztiari, aukera izan dezan bertan azaltzen den edozein neurri exekutatzeko Estatuaren Administrazio Orokorrek behar dituen ondasun edota zerbitzu guztiak kontratatzeko COVID-19 birusari aurre egiteko. Halaber, aurreikusten da aukera ematea ezartzeko ezen, beharrezkoa bada, gastuak justifikatu behar direla, baldin eta funtsak igortzen badira pertsonen osasuna COVID-19tik babesteko hartzen diren neurriek eragiten dituzten gastuak estaltzeko.

Beste alde batetik, artikulua hori ere aldatzen da, osatzeko helburuaz, Administrazioaren kanpo-jardunean efektiboagoak izan daitezten kontratazioa, funts-igorpenak eta ordainketak; beti ere, COVID-19 birusari aurre egiteko hartzen diren neurriak errazteko. Hori guztia errege lege-dekretu honetan ezartzen diren baldintza formalak betez egin beharko da.

Egoitza atzerrian duten naziokoak ez beste hornitzaileek kontratazio-espedienteen esparruan egiten dituzten fakturak, azkenik, ez dira egin beharko baliabide elektronikoen bidez. Neurri horien guztien xedea da Administrazioak hobeto eta eraginkortasun handiagoarekin egin ahal izatea kanpoko kontratazioen izapideak; horrela, kanpo-merkataritzaren errazteko da COVID-19 birusaren ondorioz gaur egun ditugun salbuespenezko inguruabarretan.

III

Lege hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak galdegiten dituen printzipioekin: premia, eraginkortasuna, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Ondorio horietarako, premia- eta eraginkortasun-printzipioak betetzen dira; izan ere, herritar guztien interesa dago ezartzen diren neurrien oinarrian, eta legea da hori lortzeko tresnarik egokiena. Horrela, lege honen bidez erantzuna ematen zaio COVID-19 birusak sortu duen osasun-alertaren ondoriozko ezohiko larrialdiak jarduera ekonomikoan eta enplegua atxikitzeko eta babesteko zereginean kontrolik gabeko ondorio konponezinak edukitzeko arriskua ahalik eta gehien jaisteko beharrari; horrela, babesgabetasuna saihestuko da, eta bermatuko da jarduera ekonomikoa berrabiatzea eta suspertzea.

Era berean, proportzionala ere bada: bere helburua lortzeko behar-beharrezkoak diren alderdiak baino ez ditu arautzen, eta soilik sortuko ditu ondorioak bere horretan segitzen duen bitartean aurretik deskribatutako aparteko egoera iragankor horrek. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen du, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Era berean, gardentasun-printzipioa ere betetzen du; izan ere, argi eta garbi azaltzen du zer helburu duen, eta azalpen bat ere eskaintzen du. Azkenik, efizientzia-printzipioari dagokionez, lege honek ez die administrazio-karga gehiagorik ezarriko, aurretik zeudenak ez badira.

1. artikulua. *Zentro sanitario eta sozialetako jarduera eta enplegua mantentzea.*

1. Harik eta osasungintzako agintaritzek indargabetu arte COVID-19ak sortutako krisialdi sanitarioari aurre egiteko hartutako neurri guztiak, helburu hori lortzeko, honako hauek joko dira funtsezko zerbitzutat, berdin delarik zein den haien titulartasuna (publikoa edo pribatua) edo haien kudeaketa-araubidea (zuzena edo zeharkakoa):

a) Osasun Ministerioak erabakitzen dituen zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioak.

b) Honako helburu hauek dituzten zentro, zerbitzu eta establezimenduak: arreta ematea haurrei, nerabeei, zaharrei, mendekotasun-egoeran dauden pertsoneri, desgaitasunen bat duten pertsoneri, adikzio-arazoak edo droga-menpekotasunekoak dituztenei, gizartean baztertuta daudenei edo baztertzeak arriskuan daudenei eta etxerik gabekoei; beti ere, Gizarte Eskubideetako eta 2030 Agendako Ministerioak zehaztutako baldintzetan.

2. Funtsezko izaera horrekin bat etorritik, agintaritzak eskudunek hartu beharreko neurriak hartu beharko dituzte aurreko apartatuan aipatzen diren zentro, zerbitzu eta establezimenduek beren jarduera mantendu ahal izan dezaten, hargatik kalterik egin gabe martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan aurreikusitako prozedurak etetez edo partzialki murrizteaz, edo prozedura horiek langileei aplikatzeari, kasuan kasu xedatzen diren baldintzetan.

3. Arau-haustetzat joko da ez betetzea aginduak, agintaritzak eskudunek ematen dituztenak artikulua honetan aurreikusitako xedapenak betetzeko; baita aginduak betetzeko eragozpenak jartzea ere. Beraz, hori zehatu ahal izango da, indarrean den legeriaren arabera.

2. artikulua. *Enplegua babesteko aparteko neurriak.*

Lan-kontratuak azkentzeko edota langileak kaleratzeko, ezin dira erabili martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23. artikuluetan kontratuak etetez edo lanaldia murrizteko ezartzen dituen neurriak: ezinbesteko kasuak eta arrazoi ekonomikoak, arrazoi teknikoak, antolakuntza-arrazoiak eta ekoizpen-arrazoiak.

3. artikulua. *Aparteko neurriak 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 25. artikulua garatzeko eta langabezia-prestazioen izapideak eta ordainketa azkartzeko (8/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena).*

1. Honela hasiko da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezartzen diren arrazoieta oinarrituta kontratuak eteteko eta lanaldia murrizteko abiarazten diren prozeduren eraginpean dauden pertsona guztiei kotizaziopeko langabezia-prestazioa onartzeko prozedura: enpresak eskaera kolektiboa aurkeztu behar dio langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateari, langileen ordezkari modura diharduela.

Eskaera hori, bestalde, langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitateak emandako ereduan egin behar da, eta hurrengo apartatuan arautzen den komunikazioari erantsi behar zaio.

2. Eskaera kolektiboaz gainera, aurreko apartatuan aipatzen den komunikazioan honako informazio hau ere eman behar da, espedientearen eraginpeko lantoki bakoitzeko:

a) Enpresaren izena, egoitza, identifikazio fiskaleko zenbakia, eta kontratua etengo zaien edo lanaldia murriztuko zaien langileen Gizarte Segurantzako kotizazioen kontuaren kodea.

b) Enpresaren legezko ordezkariaren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia, telefona eta posta elektronikoko helbidea.

c) Lan-arloko agintaritzak espedienteari esleitutako zenbakia.

d) Ezarriko diren neurrien azalpena, eta pertsona langileak noiz geldituko diren haien eraginpean.

e) Lanaldia murrizten zaien langileen kasuan, lan-denboraren murrizketaren ehunekoa, eguneko, asteko, hileko edo urteko oinarriaren arabera kalkulata.

f) Langileen ordezkarietza frogatzeko: ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena; bertan adierazi behar du langileek baimena eman diotela beren ordezkari gisa aritzeko.

g) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ebazpen bidez zehazten duen informazio osagarria.

Enpresak komunikazioan emandako datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri eman beharko du, eta neurriaren aplikazioa noiz amaituko den ere bai, nahitaez.

3. Erregulazioa ezinbestekoa den kasuetan (martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretua, 22. artikulua), enpresak aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea eskatzen duenetik 5 egun igaro baino lehen bidali beharko du aurreko apartatuan aipatzen den komunikazioa, edo, bestela, dekretu horren 23. artikuluan arautzen diren prozeduretan, bost egun igaro baino lehen lan-arloko agintaritzak eskudunari jakinarazten dionetik zer erabaki duen. Komunikazioa baliabide elektronikoz bidali behar da, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak zehaztuko du nola.

4. Aurreko apartatuetan arautzen den komunikazioa ez bidaltzea arau-hauste astuna izango da, eta Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategineko 22.13 artikuluan aurreikusten da (testu hori abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

5. Artikulu honetan ezartzen dena gorabehera, lan-arloko agintaritzak bere ebazpenak eta enpresen azken komunikazioak bidaliko dizkio prestazioak kudeatzen dituen entitateari, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23 artikuluetan hurrenez hurren arautzen dituen arrazoiaren arabera izapidetzen diren espedientei dagokienez.

4. artikulua. *Kooperatiba-sozietateei aplikatu ahal zaien aparteko neurria, bazkideen lan-jarduna erabat edo modu partzialean eteteko erabakiak hartzeko, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz.*

Baldin eta, baliabide-eskasiagatik edo dauden baliabideak egokiak ez izateagatik, kooperatiba-sozietate batek ezin badu egin batzar orokorra baliabide birtualez egiteko

deialdia, artezkaritza-kontseiluak eskumena bereganatu ahal izango du onartzeko erabat edo modu partzialean etetea bazkideen lan-jarduna, eta hori izapidetzeko ziurtagiria egin ahal izango du, 8/2020 Errege Lege Dekretuak (martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena) 22. eta 23. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz.

5. artikulua. *Aldi baterako lan-kontratuen gehieneko iraunaldiaren zenbaketa etetea.*

Aldi baterako kontraturik eteten bada (prestakuntzakoak, txanda-kontratuak eta bitartekoak barne) martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23. artikuluetan arautzen dituen arrazoieta batengatik, kontratu-mota horietan, eten egingo da hala kontratu horien iraupenaren zenbaketa nola etendako aldiaren baliokide diren erreferentzia-aldiena (kasuan kasukoa kontratu-motaren arabera), kontratua eteten zaion langileari dagokionez.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan arautzen diren arrazoieta oinarritutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen iraunaldia mugatzea.*

COVID-19 birusaren ondoriozko aparteko egoera amaituz gero, ezingo da luzatu aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienterik, baldin eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. artikuluan arautzen diren arrazoieta oinarritzen bada; beti ere, arau horren 28. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz. Beraz, espediente horiek bakarrik luzatu ahal izango dira bere horretan dirauten bitartean alarma-egoerak, zeina 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu baitzen, eta hark izan ditzakeen luzapenek (463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen duena).

Muga hori berdin aplikatuko zaie hala ebazpen espresu bidez ematen diren espedientei nola administrazioaren isiltasunaz ebazten direnei, enpresaren eskaeraren edukia gorabehera.

Bigarren xedapen gehigarria. *Zehapen-araubidea eta bidegabeko prestazioak itzultzea.*

1. Enpresak zehatu ahal izango dira baldin eta eskaeran datu faltsu edo okerrrik ematen badute; betiere, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean aurreikusten dena aplikatuz (testu hori abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Era berean, arau horretan aurreikusitakoaren arabera, enpresaren jokabidea ere zehatu ahal izango da, baldin eta, enpleguari dagokionez, neurriak eskatzen baditu beharrezkoak izan gabe edo nahikoa loturarik izan gabe neurriok eragiten dituen kausarekin; betiere, egoera hori enpresak emandako datuen faltsutasunetatik edo okerretatik ondorioztatzen bada, eta datuok eragiten badute bidegabeko prestazioak sortzea edo jasotzea, edo bidegabeko kenkariak aplikatzea Gizarte Segurantzari ordaintzen zaizkion kuotetan.

2. Langileren bati prestaziorik bidegabe aitortzen bazaio aurreko apartatuan aurreikusitako ez-betetzeetakoren baten ondorioz eta langileari egotzi ezin zaion arrazoieta batengatik, itzuli egin beharko dira bidegabe sortutako prestazioak. Halakoetan, enpresak entitate kudeatzailean sartu beharko ditu langileagatik jaso dituen kopuruak; betiere, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera.

3. Prestazioak itzultzeko aurreko apartatuan ezartzen den betebeharrak hori, bestalde, eskatu ahal izango da harik eta preskribatu arte Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezartzen diren arau-hauste aplikagarriak.

Langileak gorde egingo du soldata jasotzeko eskubidea, hasieran onartutako enplegu-erregulazioko aldiari dagokiona, baina kenduta langabezia-prestazio modura jasotako kopuruak.

Hirugarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak 22. eta 23. artikuluetan ezartzen dituen arrazoieta oinarritutako prozeduren ondoriozko langabezia-prestazioen ondorio-data.*

1. Ezinbesteko kasuetan, legezko langabezia-egoeraren ondorio-data hura eragiten duen egitatea gertatzen den data da.

2. Baldin eta langile bati kontratua eteten edo lanaldia murrizten bazaio martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak, zeina COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriei buruzkoa baita, 23. artikuluan ezartzen duen arrazoiarengatik, legezko langabezia-egoeraren ondorio-data beti izan behar da enpresak lan-arloko agintaritzari hartutako erabakiaren berri ematen dion eguna edo ondokoa.

3. Enpresaren ziurtagirian adierazi behar da zein diren legezko langabezia-egoeraren arrazoiak eta ondorio-data; ziurtagiri horrek, berriz, langabezia-egoera egiaztatzeko balio izango du.

Laugarren xedapen gehigarria. *Langabezia-prestazioak kudeatzen dituen entitatearen eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren arteko lankidetzak.*

Entitate kudeatzaileak iruzur-zantzuak antzematen baditu langabezia-prestazioak lortzeko orduan, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari jakinarazi behar dio, behar diren ondorioetarako.

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziarekin eta Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoekin lankidetzan arituz, honako zeregin hau txertatuko du bere jarduketan: egiaztatzea benetakoak ote diren martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 22. eta 23. artikuluetan ezartzen diren arrazoieta oinarrituta abiarazten diren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteetan aletzen diren arrazoiak.

Azken xedapenetako lehenengoa. *COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikulua aldatzea.*

Idazkera berria ematen zaio martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege Dekretuaren 16. artikuluari, zeinak presako neurriak hartzen baititu COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko —errege lege-dekretu hori, berriz, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako seigarrenak aldatu zuen—, eta honela geratzen da:

«16. artikulua. *Kontratazioa.*

1. COVID-19ari aurre egiteko Sektore Publikoko entitateek zuzeneko edo zeharkako edozein neurri hartuz gero, horrek justifikatzen du berehala jarduteko beharra, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 120. artikulua aplikatuko da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak ekartzen dira Espainiako ordenamendu juridikora.

2. Aurreko paragrafoko aurreikuspenarekin bat etorriz, presako izapidetzea aplikatuko zaie sektore publikoko entitateek egin behar dituzten kontratu guztiei, baldin eta sinatzen badira pertsonak babesteko eta COVID-19ari aurre egiteko Ministro Kontseiluak hartutako beste neurri batzuei erantzuteko. Kasu horietan, kontrako ordainketarik egin behar bada kontratistak egin beharreko prestaketa-jarduketengatik, ez da aplikatuko aipatutako 9/2017 Legearen bermeei buruz xedatutakoa, eta kontratazio-organoak zehaztuko du inguruabar hori, kontuan izanik zer aukera dagoen beste bide batzuetatik beharri erantzuteko eta zein den kontratatu beharreko prestazioaren izaera. Espedientean, jaso beharko da zelan justifikatzen den hartutako erabakia.

3. Geroago justifikatu ahal izango da, baldin eta funtsak igortzen badira pertsonen osasuna COVID-19tik babesteko neurriak hartzeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko.

4. Beharizan horiek betetzeko kontraturen bat kanpoan egin behar izanez gero, osorik edo zati bat atzerrian formalizatu edo gauzatu behar delako, Misioko edo Ordezkaritza Iraunkorreko buruak formalizatuko du, Administrazioak atzerriko kontratistarekin askatasunarekin itundutako baldintzen arabera, baldin eta horren esku-hartzea guztiz ezinbestekoa bada kontratua gauzatzeko, beharrezkoa delako pertsonak babesteko beharrei erantzuteko eta Ministro Kontseiluak COVID-19ari aurre egiteko hartutako beste neurri batzuei erantzuteko, eta hori espedientean frogatzen bada. Nolanahi ere, kontratuaren arloaren arabera eskumena daukan ministerio-saileko titularrak bere gain hartu ahal izango du eskumen hori. Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eta Administrazioak atzerriko kontratistarekin itundutako baldintzen arabera gauzatu beharko dira.

Artikulu honen hirugarren apartatuan aipatzen diren funts-igorpenak Espainiako edota atzerriko kutzazainen alde egin ahal izango dira. Haien finantza-kudeaketa, berriz, Osasun Ministerioaren esparruan mantenduko da, eta beraren aurrekontuaren kargura; nolanahi ere, ordainketa irmoak atzerriko ordainketa-kutzazainen bidez egin ahal izango dira. Dena dela, Osasun Ministerioaren titularrak finantza-kudeaketaren eskumena beste organo edo entitate batzuei eskuordetu ahal izango die, berdin delarik haiek menpekoak diren ala ez.

Kontratazioa ezinbestekoa bada egiten den estatuko merkatuaren eta merkataritza-trafikoaren egoera dela-eta, kontratistak prestazioa eman aurretik egin ahal izango dira ordainketa guztiak edo batzuk, 2. apartatuan aurreikusitako moduan. Halako eragiketen ondorioz gertatzen diren galerak, berriz, Estatuaren aurrekontuak bereganatuko ditu.

5. Errege lege-dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera, ez dute fakturazio elektronikoaren betebeharra izango (25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Faktura elektronikoa sustatzekoa eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzekoa) egoitza atzerrian duten eta naziokoak ez diren hornitzaileen fakturek, baldin eta artikulu honetan aipatzen diren espedienteetakoak badira».

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea eta indarraldia.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen den egunean jarriko da indarrean. 2. eta 5. artikulua, berriz, 2021eko maiatzaren 31 arte egongo dira indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madriren, 2021eko apirilaren 12an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN